

SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK

GU BAI GURASO BERRITSUAK

ZAINDU EUSKARAREKIN HARREMANA, ESKAINI ERREFERENTEAK

Haurrak eta nerabeak sozializazio prozesu batean daude eta hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da: ikasten ari diren edo inguruan duten hizkuntza bakoitza zein egoera eta harremanetan erabili ikasten dute, jarrerak garatzen dituzte (positiboak zein ez positiboak), hizkuntzei balioa ematen hasten dira...

Horri begira euskararekin ere harreman indartsua eta positiboa izaten lagundu behar diegu. Euskara beraienez hizkuntza baliotsua eta erakargarria izatea nahi badugu, harreman hori zaindu behar genuke. Horri begira erreferenteak eskaintzea da bideetako bat.

Zer egin dezakegu?

- Eskaini euskal kulturarekin harremana
- Erreferente ezagun edo erakargarri izan daitezkeenak bistaratzea
- Gertuko erreferenteak eskaintzea

Eskaini euskal kulturarekin harremana

Euskal kulturaren bidez lor dezakegu gure seme-alabek hainbat erreferente izatea. Gaur egun aukera asko ditugu horretarako:

- Euskaraz diren ekitaldietara joatea: antzerkia, musika emanaldiak, bertso saioak, Durangoko azoka eta abar.
- Etxean eta kotxean euskarazko musika jartzea, bai hurrei begirakoa baita gure gustukoa ere
- Euskarazko liburuak eskura jartzea eta aldizkarietara harpidetza egitea.
- Euskarazko produktuak oparitzea.
- Eta abar.

Bertsolaritzaren inguruan, adibidez, erreferente asko aurkitu ditzakete: bertsolari gazteak, ingurukoak eta irudi aldetik beraiantzat erakargarriak izan daitezkeenak. Lantzea merezi duen arloa da.

Erreferente ezagun edo erakargarri izan daitezkeenak bistaratzea

Erakargarriak izan daitezkeen erreferenteak eskaintzea lortu beharko genuke: beraientzako interesgarri eta baliagarri direnak. Ahal dela, erreferente anitzak izatea komeni da: musikariak bai, baina baita kirolariak, aktoreak, zientzilariak, idazleak, komikilariak eta abar. Gaur egun asko ditugu, baina gure seme-alabek ez dituzte beti eskura izaten.

Modu horretako erreferenteak ezagutzera emateko etxean euskarari leku handia egitea oinarrizkoa da:

- Irratia eta telebista euskaraz jartzea
- Euskarazko prentsa irakurtzea

Horretaz gain, erreferente diren edo izan daitezkeenak gure herrian edo inguruan aritu behar badute, merezi du ekitaldi edo jarduera horietara hurbiltzea eta horietan parte hartzea.

Gertuko erreferenteak eskaintzea

Gertuko erreferenteek garrantzia handia dute. Beraiek baino zerbait helduagoak diren gazteak, herrikoak edo ingurukoak, eta euskara erabiltzen dutenak hainbat egoera edota harremanetan.

Besteak beste: entrenatzaileak, antzerkiko irakasleak, aisialdiko begiraleak, kirol bera egiten duten gazte helduagoak, eta abar.

Gertuko erreferenteak eskaintzera begira bi bide behintzat baditugu:

- Euskaraz diren eskola orduz kanpoko jarduerak
- Euskararen aldeko ekitaldietan parte hartzea

Beraz, eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz izateak honetarako ere garrantzia dute. Baina gertuko erreferenteak eskaintzeko modua izan daiteke herriko ekitaldi eta jaiak ikusteak eta horietan parte hartzeak ere.

Kontuan izan

- Hamar urte bitarte: gure eragina handia da eta erreferente asko eskaintzeko aukera dugu. Euskarazko musika jar dezakegu, Durangoko azokara joan, euskaraz diren jardueretara bideratu ditzakegu eta abar. Hainbat modutara lor dezakegu erreferenteak eskaintzea.
- Hamar urtetik aurrera: gure eragina gero eta txikiagoa izango da. Erreferente asko gertuko harremanetan izango dituzte eta pertsonai ezagunen berri ere gertuko harremanen bidez eta sare sozialen bidez jasoko dute. Euskaraz bizi diren talde eta giroekin harremana izan dezaten zaindu behar dugu: euskarazko jarduerak, ekitaldiak, euskararen aldeko ekimenak... Hor aurkitu ditzakete hainbat erreferente eta hor izan dezakete hainbat erreferente ezagunen berri.